

*Oraingoan pertsona eta gizartea lotzen duen balioa lantzen dugu: **askatasuna**.*

Oinarrizko justiziaren lehen forma da batzuek besteekin erabili behar duguna elkarri izaki librea garela onartuta. (p77)

Beste gogoeta batzuk:

Kooperatibismoaren ideala jendea gizatiarragoa egitea da, eta gizakia animaliangandik bereizten duen ezaugarri nagusia arrazionaltasuna eta askatasuna badira, geure burua eta besteena gizatiarragoa egitea gu geu askeago, inteligenteago, kontzienteago eta arduratsuago bihurtzea izango da nagusiki, natura gehiago menperatzen duten eta naturaren hain esklabo ez diren pertsonak egitea. Bai miseria bai ugaritasuna esklabotasunaren formak izan daitezke, benetako gizatasuna eta espiritu askatasuna falta direnean. (p30)

Askatasun pertsonala ez da irmoa izango morrontza kolektiboa gainditzera bideratuta ez badago. (p78)

Askatasuna karga astuna da eta bakarrik bizitzaren arlo guztietan parte hartzera trebatuta lor daiteke karga hori ondo eramatea. (p79)

Askatasuna maite duenak gogoan izan behar du besteek ere desio dutela. (p85)

Nora goaz agindu behar dutenekin agintzen ez badakite edo erdipurdi agintzen badute, edo agindua bete behar dutenekin, zuhurtasunez egiten badute imajinaziozko zapalkuntzatik edo esplotaziotik ihes egiteko? Libre izatea ez da luxua, premia eta betebeharra baizik. (p100)

Gizaki bakoitzak gizaki kopuru bat darama bere baitan eta gizaki horiek denak iritzi desberdinekoak dira. Gizaki batean artista, jakintsu, filosofo, aita, langile bat egon daiteke... eta pertsonaia horietako bakoitzak gauzak ikusteko modu bat dauka, ondoan duenak duenaz bestelakoa. (p92)